



EKITALDI GEHIAGO GAUR **ASTE BERDEAN**

Atzokoan Villabonan herriko eskolakoak eta norbanakoak bigarren eskuko produktuak saltzen aritu ziren » 3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-06-06

VII.URTEA 1.721.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

▶ WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Zabor Mankomunitatea osatzen duten herrietako hainbat ordezkariak moztu zuten zinta. ESTI EZBIZA

SAN BLASEKO GARBIGUNEA JADA ERABILGARRI

TOLOSALDEA Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak bultzatutako zerbitzua atzo inauguratu zuten; eskualdeko bigarrena da z



Eskolako umeak irailetik ari dira datorren igandeko jaia prestatzen. HITZA

Guztia prest dute berrobitarrek Eskola Txikien Festarako

BERROBI 'Eskola txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik' lelopean egingo dute hilaren 14an 6

Arrospide eta Saralegi, Urrezko Aizkora finalean, gaur 7



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACION DEPARTAMENTO DE EDUCACION

IES Hernani BHI
A. Iturriaga - K. Labaka



ELEKTRIZITATEA

- Instalazio elektriko eta automatikoak (Erdi Maila)
- Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

MEKANIKA

- Mekanizazioa (Erdi Maila)
- Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa) (Goi Maila)

A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g Tel.: 943 551188 Faxa: 943 552271
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 Tel.: 943 551958 Faxa: 943 330550
institutua@hernanibhi.com • www.hernanibhi.com • 20120 HERNANI

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 12ra





Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea osatzen duten herrietako hainbat ordezkari izan ziren inaugurazio ekitaldian. E. E.

Erabiltzeko moduan da San Blaseko garbigunea

Ingurumena » Atzo goizean inauguratu zuten Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak bultzatutako zerbitzua.

ERREDAKZIOA

Atzo inauguratu zuten San Blas auzoko garbigunea. Anoetakoek emandako lehen pausoaren ostean, eskualdean zabaltzen den bigarrena da. Ingurumenaren Nazioarteko Eguna zen atzo, eta data berezi hau aukeratu zuten Tolosaldeko Zabor Mankomunitatekoek, eremuaren irekiera ekitaldia ospatzeko. Garbiguneak berberabiltzeko edo birziklatzeko etxe-hondakinak eta antzekoak gaika biltzeko balio du. Normalean, zabor poltsan sartzen ez diren eta ondoren aprobetxa daitezkeen gauzak eramaten dira horra. Baita, lehen bailehen alde batera utzi nahi diren materialak ere.

Inaugurazioan, Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako zenbait ordezkari izan dira. Baita, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorren diputatua den Karlos Ormazabal. Jokin Bildarratz Tolosako alkateak adierazi bezala, Tolosaldeko herriek elkarlanean aurrera eramandako proiektu bat baita hau. Garbigune berri hone-

tan 578.000 inbertitu dira eta hau eskualdeko 28 udalerriek ordaindu dute.

Garbigunea lehen hondakin zabortegia zen eremuan kokatzen da, Tolosako hilerrietatik 150 metro-tara. Instalazioak 2.600 metro² ditu eta maila ezberdinetan dauden bi plataformatan dago banatuta. Beheko mailan, erabiltzaileek goiko plataformatik deskargatzen dituzten hondakinak jasotzen dituzten edukiontzia daude. Halaber, 30 metro³ko 10 edukiontzi ditu, eta bertan, hondakin ezberdinak sar daitezke.

Aipatu bezala, garbigunea hau, eskualdean eraikitzen den bigarrena da. Hain zuzen ere, 2002an ireki zen Anoetakoa. Datorren urtean berri, beste bat zabaltzeko asmoa dute Tolosaldeko Zabor Mankomunitatekoek; hau Villabonan egongo da.

Zerbitzua doakoa da, eta erabiltzaileek, hara joan, eta bertako arduradunaren argibideak jarraituz, edukiontzian sartu ditzakete hondakinak. Edukiontziak betetzear, birziklatzeko, konpostatzeko edo desagerrarazteko instalazioetara eramango dira hondakinak.

Garbigunearen helburuak

Zerbitzu berri honek hainbat xede ditu. Alde batetik, hiri hondakinetako material birziklagarriak aprobetxatzea. Bestetik, tamaina han-

» ZENBAIT DATU

Eraman daitezkeenak

- Etxeetan egindako obra txikien zaborrak eta obra-hondakinak.
- Plastikoko birziklagarriak.
- Beste plastiko batzuk.
- Gauza handiak.
- Papera eta kartoia.
- Metalak eta txatarra.
- Inausketako eta lorazaintzako hondakinak.
- Egurra: palesak, kaxak...
- Linea zuriko etxetresna elektrikoak: hozkailuak, garbigailuak...
- Linea gris-marroia: ordenagailuak, telebistak...
- Etxe-hondakin arrisksutsuak ere eramandak: pilak, pinturak, bateriak, fluoreszenteak...

Orduetgia

- Astelehenetik ostiralera. 9:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 19:00etara.
- Larunbatak. 9:00etatik 13:30era.
- Igande eta jaiegunak. Itxita.
- Abuztua. Astelehenetik larunbatera 9:00etatik 13:30era.

diko hondakinak kontrolik gabe isurtzea saihestea. Hirugarrenik, etxeetan sartzen diren hondakin arrisksutsuak bereiztea; eta azkenik, norberak sortzen dituen hondakinak aukeratzeko eta berreskuratzeko ohitura sustatzea.



Atzo aurkeztu zuten sanjoanetako kanpaina berria. E. EZEIZA

Asteburua zozketan, Alde Zaharra dendak-en eskutik

Ekonomia » Sanjoanetako kanpaina abiatuko dute astelehenean; Zelai talasoterapiaren egonaldia zozketatuko dute orain.

ERREDAKZIOA

Alde Zaharra Dendak merkatarien elkartek San Joan jaiei begira, ekimen berri bat jarri du martxan. Oraingo honetan, Zumaiaiko Zelai talasoterapia zentruan asteburu bat igarotzeko aukera izango dute bezeroek.

Datorren astelehenean, hilaren 8an hain zuzen, jarriko dute martxan kanpaina eta hilaren 23ra arte luzatuko da. Epe honen barruan elkarteko saltokietan produktuak erosten dituztenek txartel bat jasoko dute. Bertan, bakoitzak, izen-abizenak, herria eta telefono zenbakia idatzi beharko ditu, eta saltokian bertan egongo den kutxatxoan sartu. Ondoren, denak bilduko dituzte eta zozketa egingo dute. Hilaren 26an, 15:15ean emango dute saria Erretengibelako lokalean. Irabazleak, beste lagun batekin, asteburu oso bat Zui-

maiako Zelai talasoterapiaren igaro ahal izango du. Gastu guztiak ordainduta izango dituelarik.

Egun 150 saltoki daude Alde Zaharra dendak elkartearen baitan eta hauen artean, 100.000 txartel banatuko dituzte. Horieta bakoitzeko txartel bat erosi beharko dute. Berdin dio zein den honen prezioa, produktu bakoitzeko txartel bat emango baitute.

Urtean zehar bi kanpaina berezi antolatzen ditu merkatarien elkartek, eta hau izango da aurtengo lehenabizikoa. Abendu aldera, Gabonak direla eta beste bat egingo dute. Bestalde, iaz eta duela bi urte, Ezpeleta elkarteari batera, ekimen berri bat jarri zuten martxan. Non Alde Zaharra dendak elkarteko saltoki batean zerbitzu erositako, Ezpeleta tabernetako batean, pintxo bat dohainik har zenezakeen. Orain, aldatzea erabaki dute eta atzo aurkeztutako proposamen berriarekin datoz. Itxaropena Elordi, Alde Zaharra dendak elkarteko lehendakariak azaldu bezala, «urtertik urtera aldatuz goaz, jendeari proposamen berriak egitea gustatzen baitzaio».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Bigarren eskuko azoka eta ikus-entzunezkoak, Aste Berdean

Ingurumena » Villabonan herriko eskolek eta norbanakoek bigarren eskuko produktuak saltzen jarri zituzten atzokoan.



Bigarren eskuko azoka egin zuten atzo Villabonako Berdura plazan. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko hainbat herritan Aste Berdea antolatu dute eta atzo, Ingurumenaren Nazioarteko Egunean ere izan ziren ekitaldiak. Aduna, Berrobi, Belauntza eta Amezketan ikus-entzunezkoak izan zituzten. Bestalde, Erniolede Udaltalde 21eko herriek bigarren eskuko azoka antolatu zuten Villabonan atzo arratsaldean. Hainbat postu izan ziren, herriko eskolakoak eta norbanakoek jarri zituztenak. Bestalde, Emausek kartoiarekin lotutako tailerrak egin zituen.

Asteburuan ere hainbat herritan izango dira ekitaldiak. Gaurkorako Villabonan, Amezketan, Berastegin izango dira eta baita Iru-n dagoen Plaiaundin ere.

» GAURKO EGITARAUA

Villabona

Errebote plazan Atari Bizi lehiaketarako dohaneko lore banaketa goizean zehar.

Amezketan

■ **10:00.** Mendi irteera: Zumadi herri eskola-Berazeagako erreka-Altun goena-San Martin ermita.

Villabona-Zizurkil

Goizean zehar, hegaziak behatzeko bisita gidatua Plaiaundin.

Berastegi

■ **11.00-14.00.** Eguzki-labeen erakusketa.

■ **16.00-19.00.** Eguzki-labea egiten ikasteko tailerra.

III. Emakumea Pilotari Eguna, gaur Iruran

ERREDAKZIOA

Irurako frontoian elkartzeko dira gaur III. Emakumea Pilotari Eguna ospatzeko. Bertan elkartzeko dira Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak 2004tik martxan duen Emakumea Pilotari proiektuaren baitan, aurtengo ikasturtean emakumeen 20 urtetik gorako paleta ikastaroetan aritu diren emakumeak. Ikastaroetan ibilitako 80 lagun inguru izango dira bertaratuko direnak, guztira ikasturtean parte hartu dutenen erdiak, gutxi gorabehera.

Azken festa honetan, besteak beste, Emakumezkoen Gipuzkoako Partaidetzako II. Txapelketa Herrikoia jokatuko da. Txapelketa honetan ikastaroa garatu den herri bakoitzak bere ordezkari izango du, 8 bikote izango baitira lehia bizian arituko direnak: Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Getaria, Za-

rautz, Donostia, Hernani eta Tolosa. Final laurdenak, finalerdiak eta finala jokatuko dira Irurako Udal Pilotalekuan.

Txapelketaz gain, hala ere, paleta saioak ere izango dira eta ikasturtean zehar egindako hainbat ariketa egiten jardungo dute bertaratutako emakumeek. Saio hau bi ataletan egingo dute, txapelketako final-laurdenen eta finalerdien ostean, hain zuzen ere.

Bazkari goxo askoa eta trikitilariak ere ez dira faltako ikasturteko lana merezi bezala ospatzeko, eta ezta oroigarriak ere.

Emakumea Pilotari Egunari hasiera goizeko 10ak aldera emango zaio, emakumeen iritsierarekin, eta arratsaldeko 20:30ak aldera arte luzatuko da festa. Txapelketa herrikoia finala 13:45ean izango da eta bazkaria 15:00etan hasi-koda.



Irurako Emakumea Pilotari Egunean parte hartu zutenak. HITZA

Laburrak

Fraisoron izena emateko aukera zabalik 12ra arte

ZIZURKIL » Itsasmendikoik zabalik du 2009-2010 ikasturtean eskainiko diren hasierako prestatuntzako zikloetan matrikulatzeko epea, tartean Zizurkilgo Fraisoro zentroan. Interesatuak hilaren 12ra arte izango dute aukera izena emateko.

Lurraldebusen bidaiatzeko txartelak egiteko aukera

ANOETA » Lurraldebus garraio zerbitzuti azaldu dutenez, Anoetako Coviran janaridendan aukera dago Lurraldebus txartelak ateratzeko. Tolosan eta Ibarren, esaterako, txartelak betetzeko aukera badago, baina oraindik ez dago txartelak egiteko lekurik.

Koadrilen Eguna izango dute gaur herriko festetan

ANOETA » Herriko festetan gaur Koadrilen Eguna ospatuko dute. 09:00etan XII. Eskuzko Pilota Herri Txapelketaren finalak jokatuko dituzte. 11:00etan, koadrilen arteko I. Batel Txapelketa Errota Poligonoan. 12:30ean Koadrilen Eguneko txupinazioa eta kalejira. 14:30ean, koadrilen bazkaria frontoian. 17:00etan koadrilen arteko jokoak plazan. 19:00etan Zo-Zongo batukada taldearekin kalejira herrian zehar. 21:00etan koadrilen afaria frontoian. 23:00etan Laket taldearen emanaldia plazan.

Ezker abertzaleak botoa eskatu du Iniziatiba Internazionalistarentzat

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko hautetsi eta alkate ezker-tiar abertzaleek Europako Hauteskundeetan botoa eskatu dute Iniziatiba Internazionalistarentzat Villabonako plazan egindako prentsurrekoan. Ekimen horrek aurkeztu duen manifestuarekin bat egiten dutela azaldu zuten. Ezker abertzaleak ere bat egiten du «aldaketa politikoa eta sozialaren defentsa eta aldarrikapenarekin, guk Euskal Herriaren eta gainerako herrien autodeterminazio eskubidea defenditzeaz gain, eskubide hori gauza dadin lanean eta borrokan dihardugulako».

Iniziatiba Internazionalistaren aldeko botoa eskatzeko beste arrazoia gatazka politikoaren ingurukoa da. «Koalizio honek aldarrikatu bezala, gatazka politikoa konpontzeko bidean elkarriketa eta negoziazio prozesua delako giltzaria», zehaztu zuten.

Tolosan 200 lagun

Tolosan ekitaldia egin zuten atzokoan; hasiera batean Plaza Berrian egin behar zuten, baina junta elektoralak ez du hau hauteskunde gune bezala izendatu eta azkenean Kultur Etxean egin zuten. Bertan 200 lagun inguru bildu ziren.



Ezker abertzaleko hautetsi eta alkateak prentsurrekoa ematen. A. IMAZ

Euskal festa antolatu dute gaur Bentaldean

ERREDAKZIOA

Urteroko ohiturari jarraituz, Anoetako Bodegon Bentaldearen ondoren euskal festa antolatu dute gaur. 12:30ean hasiko da eta hainbat auzokariaren erkustaldia ikusteko aukera izango da: Uxarra, Mikel, Berrobi, Joakin Garmendia, Mendi-zabal, Olasagasti, Arria, Larretxea eta Aierbe.

Erakustaldiaren baitan desafioa ere izango da, Jokin Garmendia eta Mikelen artean. Egin beharreko lana: Garmendiak 10 oinbeteko

enbor eta Mikelek 10 kanaerdiko ebaki beharko ditu, antolatzaileek azaldu dutenez. Ondoren bazkari izango da Bodegon Bentaldean Telleria eta Sorozabal bertsoari-ekin.



HASIERAKOAK:

- Antxoazko hostopilak, tomatearekin eta udaberriko patatekin.
- Ziza nahaskia, baserriko arrautzarekin.
- Ganba handia plantxan.

BIGARRIN PLATERAK:

- Txerrikume errea.
- Legatza gari-zainzuriekin.

AZKENBURUKOAK:

- Beratutako marrubiak kopatxoan, yogurt eta mentazko izozkiarekin.
- Kremazko kanutilloa

Edaria eta ogia barne

Prezioa: 40 euro

Tel.: 943 683 078 • BERROBI

SALGAI

■ **Motorra.** Honda CBR 600a salgai, 15.000 kilometro, 2003 urtekoa. Estrekin eta zirkuituetarako egokitua. 5.000 euro. Harremantarako: 667 41 88 75.

■ **Taxi lizentzia.** Tolosako taxi lizentzia saltzen dut, kotxearekin edo kotxerik gabe. Informazio gehiago nahi izanez gero: 616 542 960.

Industri sektorean aldaketak egiteko proposamena onartu dute

Amezketak » Adir enpresak Irigarritasun planaren proiektuan erdiguneko aldea oinezkoa izatea proposatu du.

ERREDAKZIOA

Amezketako udaletxko Pleno Aretoan egindako azken bilkuran 2008ko ekitaldiko kontu orokorrak eta udal ondasunen zuzenketak onartu zuten denen aldeko botoekin. Alkate-Lehendakariak adierazi zuen Amezketako Plan Orokorreko 9.1 eta 9.2 Industri Sektoreetan aldaketa puntuala gauzatu nahi duela Amezketako Udalak. Horretarako Hektor Espin Arkitektoak lan proposamena luzatu zion Udalari. Honenbestez, onartu egin zuten aldeko lau bozkaekin eta kontrako batekin, Espinek egingo du eta 17.500 euroan (BEZa gabe).

Kultur Etxearen erosketak, urteko aurrekontuetan 900.000 euroko defizita eragiten duela adierazi zuen Jexus Inurrita alkateak.

Entitate honek defizitegoeraren onartu du Momento deficit, 2009 urterari dagokiona, Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Sistema europarraren arabera. Ondorioz, Plan ekonomiko eta finantzario bat egin beharko du 18/2001 Legeak, Aurrekontuen Egonkortasunari buruzkoak. Plan horrek honako ezaugarriak bete behar ditu: Udal batzarrak onartu beharko du, defizita sortu denetik hiru hilabete epean.

Hori dela eta, Udal Batzarrari, 2009-2012 epealdiko ekonomiko eta finantza planari dagokion ondorengo erabaki hau hartu zuten: kontu-hartzailearen txostena, memoria eta 2009-2012 epealdiko aurrekontuen aurreikuspenak.

Honetaz gain, EAE-ANVK presoen aldeko mozioa irakurri ondoren, bertan zeuden onartu egin zuten.

Hirigintzakoak zenbakiekin

Hirigintza/obra batzordeak ondasun inbentarioa egin zuten: Ergoneko aparkalekua egiteko lursaila



Hemendik 5 urtera Fernando Amezketarra duela 250 urte jaio zela ospatuko dute. Honen inguruan ekitaldiren bat egingo dute Amezketan. N. URBIZU

51.634,95 euro; eskolatarako frontoia 228.549 euro; Aitzio bidea 31.632 euro; elurra kentzeko pala 11.217 euro; eremu degradatuen proiektua 1.740 euro eta Amezketako liburuia 18.812 euro.

Aurtengo aurrekontuetan Kultur Etxearentzat 300.000 euro aurreikusi zuten eta erosketarako 1.200.000 euro behar izanik, 900.000an handitu behar dute aurririspina. Horretarako aurreko urtetik geratu diren 150.000 euroekin kontaktzen dute, 360.000 Kutzako mailegua, 60.000 GFAko Ongizateetik, eta 330.000 GFAko Landa Gipuzkoa 32tik.

Irigarritasun Planari dagokionez, Adir enpresak azaldu du Amezketako proiektua. Eraikuntza publikoetan atek eta komunak aldatzea eskatzen du eta gainera gehienetan igogailuen beharra. Kaleetako espaloietan 1,8 m ingurua libre izateko, zabaldu beharra edo arbolak, farolak edo seinaleak kendu beharra.

Beste proposamen bat barrengo kalea norabide bakarrekoa izatea izan zen, behetik gorantz, «oinez-

ken jakiteko asmoz, galdeketa egin dute, eta erantzunaren zain daude orain.

2014ean 250 urte izango dira Fernando Amezketarra jaio zela eta 2015ean 400 urte Amezketan independente izan zela. Hau kontuan izanik urte horretarako gaiari lotutako ibilbide bat antolatu nahi da, denek adostutakoa, jarraipena izan dezan eta datorren batzordean zehaztuko da gehiago.

Mañu Oterminek, bere aldetik, bere proposamena agertu zuen: datorren urtean uztailan hiru egunetako mendi lasterketa antolatu nahian dabilta. Bera talde horren barruan dago eta Amezketatik pa-

Alkatearen arabera aurrekontuan 900.000 euroko defizita eragingo du Kultur Etxeak

satzea proposatu du. Udalaren laguntza beharko luke, 14 orduak antolatzen direnean bezala. Batzordean ontzat eman da proposamena, eta zehazten joango dira.

Bestalde, EUDELetik jakitera eman dutenez, krisien ondorioz hazidako kutxetan diru gutxiago sartzen da eta Udalak honen proportzioan jasotzen duenez, jaitziera izango du. Jaitziera hau %22 eta 25en bitartekoa izan daiteke.

BIZIARTEKO ZIGORRIK ETA HERIOTZA ZIGORRIK EZ! PRESOKA EUSKAL HERRIRA

EAE-ANVK mozioa sartu zuen eta denen aldeko botoekin onartu zuten. Honela dio mozioak:

«Espainiak eta Frantziak Euskal Herriaren eskubideak errekonozitzeko bidea baztertu eta eskubide horiek murriztu eta ezabatzeak hautua berretsi dute. Finean, gatazka politikoa iraurarazi eta luzatzeko apostua egin dute.

Euskal Herriari salbuespen egoera iraurkorra inposatu izan zaien. Egun, demokrazia formalaren arauak hankaz gora ipini dituzte, *de facto* salbuespen egoeraren sakonduz. Eguneroko politikagintzan bezala espetxetan ere bai.

Euskal Preso Politikoen kopurua azken 30 urteotako inoizko altue-na da: 750. Sakabanaketa politika martxan jarri zutenetik 20 urte pasata ere indarrean da oraindik.

Biziarreko espetxe zigorra inposatu dute, perpetua Frantziaren eta 40 urte artekoa Espainiaren. Doktrina berriak asmatu dituzte kondena beteta duten euskal presoek eta kondizionalean beharko luketenei askatasunerako eskubidea ukatzeko. Beraz, eskatzen dugu:

Euskal presoek aplikatzen dieten politika penitentziarioa amaitzea; sakabanaketa behin betirako amaiera ematea; gaixotasun larriak dituzten presoak kaleratzea. Isolamendu eta bakartasunaren kontra euskal preso politikoei Euskal Herriaren egoteko-biltzeko eskubidea dute. Dagozkien eskubideen jabe, Euskal Herriatuak izatea eskatzen dugu eta udalteekekoan banderola jarriko dugu».

Bihar Aste Berdean eguzki-labeek buruzko ekimenak egingo dituzte

ERREDAKZIOA

Bihar, Amezketako udaletxe azpiko pasabidean Eguzki-labeen erausketa eta tailerra antolatuko dute ISF (Mugarik gabeko Ingeniaritza) taldearen eskutik. Aste Berdearen azken ekitaldia izango da biharkoa. 11:00ak eta 14:00ak bitartean eguzki-labeen erakusketak jarriko dute. Horrez gain, eguraldiak laguntzen badu, janari ezberdinen prestaketa ere bai.

15:00etatik 18:00etara bitartean, eguzki-labeak eraikitze tailerra jarriko dute martxan. Edozork parte hartu dezake jardueraren baina alde aurretik taldeak antolatu ahal izateko interesa duenak abisatzea eskatu dute (689 748 176).

Eguzki-labe bat egitea oso erraza omen da. «Nahikoa da material isolatzailez egindako lapiko bat, eguzki-izpiei pasatzen utziko dien estalki gardena duena». Egun eguzkitsuetan, eguzki-izpiak zuzenean sartu eta lapiko edo labean



Eguzki-labea egitea erraza omen da. Arratsaldean tailerra izango da. HITZA

harrapatuta bezala geldituko dira, eta denborarekin, barruan dagoen janaria egosi egingo da.

Eguzki-labeak, eguzkia aprobetxatuz, 180°Cko tenperatura lor dezake, negutegi efektuan oinarritutako kutxa itxia baita. Berez, elikagaiak egosi eta frijitzeko gain, ura pasteurizatzeko erabili daitezke eta ez du erregairik behar.

Poltsa berrerabilgarriak

Astean zehar telazko poltsa berrerabilgarriak banatu dituzte herritarren artean erosketak egiteko garaian erabiltzeko. «Horrela, askotan zakarrontzian bukatzen duten plastikozko poltsa gutxiago erabiltzea lortuko dugu». Gaur, berri, 10:00etan ibilaldi bat egiteko asmoa zuten hainbat herritarrek.

TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAK LANGILE HAUEK BEHAR DITU

- Magisteritzan diplomaduna Haur Hezkuntzako berezitasunekoak. Erref: HH
- Haur Hezkuntza goi mailako teknikaria. Erref: HHT
- Hezkuntza-laguntzako espezialista. Erref: HHL

Derrigorrezkoa: EGA titulua edo baliokidea Esperientzia baloratu egingo da

Curriculumak e-mailez bidali behar dira tolosa@ikastola.net helbidera. Jasoko diren azken eguna, ekainaren 12a.



Artisautza azoka oparoa Triangulon

GIZARTEA Herenegun prestatu zituzten postuak Tolosako Triangulon eta bihar arte artisautza azoka izango da. Hamarka postu daude ikusgai bertan era guzti-tietako materialiez eginiko produktuekin, zurezko

gailuak, laurra, kosmetika naturala, beira, zilarra, hoto metalizatuak, jakiak... Hauek sei postu eskualdeko artisauenak dira eta gainontzekoak Euskal Herrikoak. I.GARCIA

Tolosa CF taldeko sei atleta «bikain» Espainiako Txapelketan

Atletismoa Lander Gilek eta Ane Elizegik lehen postua lortu zuten; gainontzekoen lana ere «goraipatzekoa» izan zen.

ERREDAKZIOA

Avilesean (Asturias, Espainia) atletismoko zerupeko gazteen Autonomien arteko Espainiako txapelketa ospatu berri dute eta bertan Euskadi ordezkatzeko Tolosa CF taldeko sei atleta izan ziren. Taldetik «Tolosako horrenbeste atleta selekzioan izatearen garrantzia» azpimarratu dute, besteak beste.

Sei atleta hauek «bikain» aritu ziren eta bereziki Lander Gilen eta Ane Elizegiren lana goraiatu dute. «Biek ere lehen postuak eskuratu zituzten». Hauek dira banaka Tolosako ordezkariak lortutako emaitzak:

Lander Gilek 400 metro hesietako froga irabazi zuen eta Gipuzkoa eta Euskadiko marka berria ezarri zuen 52" eta 95 ehuneneko markarekin.

Ane Elizegik 3000 metroko lasterketa irabazi zuen 10' 37" eta 43 ehuneneko. «Emaitza aparta», beraz.

Unai Arroyo ere bikain aritu zen eta 2000 metro oztopoetan 6. egin zuen 6' 20" eta 90 ehuneneko.

Josu Gomez ere «oso ondo» aritu zen; hain zuzen, 5 kilometro ibilian 6. egin zuen 24' 29" eta 81 ehuneneko.

Iker Epeldek, bere aldetik, 400 metroetako sailkatze frogan 50" eta 95 ehuneneko eta finalean zazpigarren geratu zen 52" eta 18 ehun-



Ane Elizegi podiumean, lehen postuan. HITZA

neneko. Aitor Zabalaren marka 200 metroetako sailkatze frogan 23" eta 70 ehuneneko izan zen. Azkenean 13. sailkatu zen 24" eta 18 ehuneneko markarekin.

4X100 metroko taldean hiru to-

losarrak izan ziren Aitor, Lander eta Xabier. Sailkatze frogan «oso ondo ibili ziren» bosgarren eginez 44" eta 289 ehuneneko markarekin. Finalean berriz zorte txarra eta deskalifikatuak izan ziren.

Maila handiko igerilariak Roberto Jauregiren omenezkoan

Hegats igeriketa Guztira 12 eta 16 urte bitarteko 167 igerilari aritu ziren Usabalen; Igarondokoak «oso ondo» aritu ziren.

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean, Usabal girodegian, Roberto Jauregiren omenezko Hegats Igeriketa Txapelketa ospatu zuten. Igarondo Urpeko igeriketa taldearen antolatzaileek azaldu dutenez «helburua betetzen ari da urtero», gero eta gaztetxo gehiagok hegats igeriketa praktikatzeko dute eta.

Aurtengoan zortzi erkidegoko (Katalunia, Nafarroa, Balear uharteak, Andaluzia, Valentzia, Galizia, Aragoi eta Euskadi) 167 igerilari aritu ziren Tolosan. Etorritako igerilari hauek 12 eta 16 urte artekoak izan ziren eta antolatzaileek diotenez, «Espainiako onenetarikoak dira; esan daiteke Espainiako Txapelketa moduko bat egon dela Tolosan asteburu honetan, partaide-tzan kopuruagatik eta kalitatearengatik».

Taldekoan, Katalunia eta Valentzia onenak

Taldeko eginiko proban kataluniarrek eta valentziarrek izan ziren onenak, baina antolatzaileek azpimarratu nahi izan dute «erkidego bakoitzak izan duela partaide bat onnen artean».

Bestalde, Euskadiko selekzioarekin 27 tolosarrekin egin zuten ige-

ri: Inigo Sanz, Yon Molinero, Imanol Zubelzu, Jokin Zubizarreta, Gaizka Goya, Ander Uranga, Mikel Mendizabal, Aras Karakus, Julen San Martin, Izadi Eguizabal, Nestor Hernandez, Julen Zubelzu, Jon Fernandez, Asier Etxabarrri, Unai Eraso, Imanol Rodriguez, Marina de la Iglesia, Mireia Urrestarazu, Miriam Sobrino, Ane Gorostegi, Irati Lakunza, Olatz Eizmendi, eta Maialen Zubizarreta. Taldeko arduradunek «guztiak zoriondu nahi» izan zituzten, «bakoitzak bere neurria, dena eman zuelako; batzuentzat horrelako txapelketa batean lehenengo aldiz igeri eginen zuten eta».

Espina entrenatzaileari omenalditxo

Zoriontzeko eguna izan zen, eta taldekoek Jon Espina entrenatzaileari omenaldi txiki bat ere egin zioten, izan ere, 25 urte daramatza taldean. Hasieran igerilari bezala aritu zen eta gero entrenatzaile bezala, «Robertoren pausoak jarraitzen». Bere irudia goraiatu dute, «oraintxe taldean adin guzti-tako jendeak disfrutatze» lortu baitu, «bai igerilekuan eta itsasoan ere».

Halaber, egun guztian zehar lana egin zuten boluntarioen lana eskertu zuten taldekik, «horrelako txapelketa bat antolatzeko 30 pertsonen lana ixila behar da eta».

Azkenik Tolosako eta Ibarako udalak, Kutxa, Villanueva ardoak, Copytec eta Euskadiko Urpeko ihardueren federakuntza esker-rrak luzatu zizkieten.



20 URTE ZUEN ZERBITZURA!

ORAIN...

Eskolapietako Lorategi 1ean
Tolosa • 943 67 45 26

IMH SARIAK 7. Edizioa

www.imh.es
Proposa ezazu zure hautespena

Ikasle ohi alpagarria
Ikasle alpagarria
Fabrikazio arloko ikaslea
2006-2009 ikasturtea

Proposa ezazu ikasle ohi alpagarria:
• Telefonoz 943748265 (Amara Arsoia)
• www.imh.es webean, bete formularioa
Epea: ekainak 10. Informazio gehiago: www.imh.es

Sarien jakin arazpen eta banaketa
ekitaldia: 2009ko ekainaren 19an

Enpresa babesleak





Kolaboratzaileak

AGME, S.A. - AUTOMATION ORIA, S.L. - BIAL MECANIZADORA S.L. - CRISTALUX S.L. - ENGRANAJES GRINDEL S.A.L. - GANDU, S.A. - GORATU MAQUINAS-HERRAMIENTA, S.A. - IRRARMA, S.A. - IMS CONSULTORES, S.L. - INDUSTRIAS ALGA, S.A. - INDUSTRIAS METALA, S.L. - ILS S.L. - INTZA, S.A. - JUARISTI, S.L. - LAP, S.A. - MAZA - MECANIZADOS GURRUTXAGA, S.L. - OGE, S.A. - PERBURGO, S.A. - POEL SISTEMAS, S.L. - T.M.NORMA.

Makina Erremintaren Institutua - IMH, Azkue auzoa 1 - 20870 Elgoibar (Gipuzkoa) - Tel 943744132 - imh@imh.es - www.imh.es

Datorren igandean izango da Eskola Txikien Festa

Berrobi » Jairako 'Eskola txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik' leloa aukeratu dute; datorren urtean Altzon izango da.

ERREDAKZIOA

Datorren igandean, hilak 14, Eskola Txikien Festa izango da Berrobin. Aurtengoa 22. edizioa da eta antolatzaileek esandakoaren arabera, ez dute hutsetik hasi behar izan, izan ere «aurretik beste hainbat herrik eta auzok prestatu izan dute festa, eta horrenbestez ibilbide luze honetan ikasitako guztia baliozgarri izan zaio hurrengoari».

Eskola txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik lelopean egun osoko egitarau aberatsa osatu dute eta horretarako, noski, «herriko jende asko inplikatu dazeregin ho-

netan: eskolako partaideez gain, Udala, ikasle ohiak, gazteak, jende helduagoa, eta oro har herriko sekrotre guzti-guztiak».

Gerturazten direnek, hortaz, hainbat ikuskizun eta ekitaldi izango dituzte eguna Berrobin gartzeko eta bide batez, gainera, «Berrobi ezagutzen ez duzenak aukera aparta duzue oraingo festaren aitzakiarekin», aipatu dute.

Horiek horrela, jokoak, pailazoka eta erromeria izango dira besteren artean.

Puzgarriak, tailerrak... egun guztian zehar

Ongietorria eta festaren hasiera 10:30ean izango da eta hortik aurrera ekitaldi ugari izango dira herrian.

Honekin guztiarekin batera, hala ere, puzgarriak, erakusketa digitala Eskolan, zaldi ibilaldiak Errota eta Lapatza artean, tailako

erakusketa eta tailerrak izango dira 11:00etatik aurrera egun osoan zehar.

Bazkaria ere antolatu dute herriko frontoian. 400 pertsonen bazkaldu ahalizateko tokia prestatuko dute eta bi menu izango dira: helduena 20 euroren truke eta haurrena 10 eurotan. Helduen menua hau izango da: langostino egosiak, haragi paella, entrekota perretxiku eta natatekin, flana izozkiarekin eta baita sagardoa, urteko ardoa, ura, likoreak eta kafea ere. Umei aldiz, paella, solomoa tomatearekin eta natillak emango dizkiete. Menuak zeliakoak diren zatiz egokiak dira.

Antolatzaileek, hala ere, frontoian antolatutako bazkarian parte hartu nahi ez dutenei eta herrian edo inguruan bazkaldu nahi dutenei ere leku hauek proposatu nahi dizkiete: Eskolako patioiko karpax etxetik eramandako janaria edo erositako ogitarteak jateko; herriko plazan dagoen Iriarte Jate-txea (943 68 30 78), Belauntzako Benta Jate-txea (943 67 28 28), El-duaineko Kontzeju Taberna-Jate-txea (943 68 33 27) eta Berastegi Arregi Jate-txea (943 68 30 59).

Jaiak «ilusio handiz» antolatu dute eta euren helburua «herri txiki eta auzoetako gure txikitasunean indartsu eta handi sentitzea» dela adierazi dute.



Irailtik ari dira lanean Eskola Txikien Festa antolatzeko. HITZA

» EGITARAUA

Hilak 14, igandea

- **10:30.** Ongi etorria eta festaren hasiera.
- **11:00-13:00.** Jokoak eta karaokea.
- **11:00-13:00.** Lekuak aldaketa; Berrobi-Altzo.
- **14:00.** Bazkaria frontoian.

- **16:30-18:00.** Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldia.
- **17:15-18:00.** Motozerraz egindako taila.
- **18:00-19:00.** Eskola Txikien festari amaiera emateko herriko eta inguruko gazteen trikitixa erromeria.

Jaietako antzerkia garai bateko eskolaren ingurukoa izango da

Ibarra » Hauspoak antolatu ohi duen kale antzerkia abuztuaren 23an izango da; asteartean egingo dute bilera.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Hauspoa Kultur Elkarteak San Bartolome jaietan antolatu duen kale antzerkia dela eta, herriarrei parte hartzeko gonbita egin nahi die.

Antzerkia abuztuaren 23an izango da eta aurtengorako, antolatzaileek Ibarrako garai bateko eskolaren inguruko gaia aukeratu dute.



Aurtengoa garai bateko eskola ekarriko dute gogora herriko jaietan. HITZA

Antolatzaileek datorren asteartean, ekainak 9, 19:00etan, Ibai-Gain 6 behean kokatzen den dantza lokalean egingo den bileran emango dituzte argibide guztiak.

Hori dela eta, «antzerkian esku hartzeko interesa eta gogoia duten herritar guztiei bilera informatibo horretara bertaratzeko deia egiten dute Hauspoatik».

«Hamaika aukera» izango dira gaur, Uzturpegunean

ERREDAKZIOA

Goizean hasiko dute Ibarrako Uzturpe Ikastolakoek Uzturpeguna.

Jaialdia izango da lehenik Haur Eskola, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBHko Lehen zikloko eta antzerki tailerreko ikasleekin eta dantza, antzerkia, bertsoak eta zenbait xelebrekeria eskainiko dituzte.

Arratsaldean jokoak izango dira, baina «elkarren artean gozatzeko hamaika aukera» ere izango direla argitu dute Ikastolako arduradunek. Gurasoei joan den urteko edalontzi horiak eramateko eskatzen diete antolatzaileek.

Zaldari eskainiko diote eguna Leaburuan

ERREDAKZIOA

Bigarren aldiz Zaldi Eguna antolatu du Leaburuko herritar talde batek. Eguna 09:00etan hasiko dute zaldunen gosariarekin eta ondoren Leaburu, Berastegi eta Uli arteko ibilaldia egingo dute. Zaldunak 13:00ak aldera iritsiko dira herrira eta ondoren frontoira joango dira bazkaltzera. Arratsaldean, aldiz, heziketa naturalari eta klasikoi buruzko argibideak jasoko dituzte eta ondoren, zaldi erakustaldia eta behor baten estalketa ere izango dira. Zaldi proba 19:00etan izango da eta 23:00etan Zurrusten musika entzun ahal izango da.

BERRI ON BAT DUGU
ZURE ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAT

TOLOSALDEAN
Zerbitzu
Ofizial Berria
BSH Taldeko
Markentzat

Interservice
Ubarburu pasealekua, 81-
Pol. Ind. 27 • 20014 Martutene

902 351 352

interservice

LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

1936KO GERRAKO OROITZAPENAK
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKOAN

ARAZKARI

hitza

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



Ingurutxo Txikirako entseguak

ARESO • Ikasturte honetan dantza talderik atera ez dela ikusita, Guraso Elkartek festetako egitarauaren barruan, abuztuaren 15ean, orain arte hurrek eguerdian egiten zuten ohiko dantza saioaren ordez, Ingu-

rutxo Txikia antolatzea erabaki zuten. 3 urtetik 15 urte bitarteko haurrak elkartu zituzten ondorioz, asteleheneretan eta ostiraletan entseguen hasteko. Nerea Azpiroren esanetara 19 haur elkartu ziren atzo. A. IMAZ



Aralar Musika Eskolakoak oholztan

LEITZA • Aralar Musika Eskolako ikasleek musika kontzertua eskaini zuten atzo Leitzako Zinean. Kontzertuak bi zati eduki zituen, izan ere, Behe Zikloko eta Goi Zikloko ikasleak ordu desberdinetan irten ziren oholztza gainera. Lehen kontzertua 18:30ean hasi zen, bigarrena berriz 20:00etan. Jende ugari gerturatu zen Zine aretora. A. IMAZ



Anjel Arrospidek eta Ruben Saralegik Urrezko Aizkolarien finala jokatuko dute, Elite mailan eta 19 urte azpikoenean. E.E.

Arrospidek eta Saralegik finala jokatuko dute gaur

Aizkora » Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketaren finala jokatuko dute gaur 22:30ean Azepeitan.

ASIER IMAZ

Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketaren finalean, leaburu bat eta leitzar bat egongo dira gaur Azepeitan: Anjel Arrospide eta Ruben Saralegi.

Herri kirol jaialdia 22:30ean hasiko da Izarraitz pilotalekuan. Aizkolariekin batera harri-jasotzaileak ere bertan egongo dira.

Eliteak eta 19 urte azpikoak

Anjel Arrospidek Elite mailan jokatu du finala, Floren Nazabalen aurka. Ruben Saralegi 19 urte azpikoen mailan ariko da Ander Erasunen aurka. Gure bi aizkolaria ezustekoa ematen saiatuko dira, dirua euren aurka irtingo baita.

Arrospidek eta Nazabalek hamabina enbor moztu beharko dituzte, 6 modu desberdinetan. 24 jardunaldi jokatu ostean eta 49 aizkolaria atzean utzi ondoren, Azepeitan irabazten duena Urrezko Aizkolaria izango da.

Gazteen mailan Saralegik ez du lan erraza. sei modu desberdine-

tan zortzina enbor moztu beharko dituzte finalean, baina gogortasun handiena Erasunek jarriko du. Izan ere, Iturengo aizkolaria 19 urte azpikoen azken lehia jokatzeaz gain, 23 azpikoetan ere finalean aurkitzen da.

Tartean Josetxo Urrutia

Azepeitan bi mailatan jokatuko dira finalak gaur 22:30etik aurrera. Tartean, harri-jasotzaileen desafioko egongo da Josetxo Urrutiaren eta Hodei Iruretagoienaren, Izeta IV.aren, artean. Hiru harri aterako dituzte pilotalekura: 125 kiloko zilindrikoa, 113ko kubikoa eta 100 kiloko bola.

Udalerrri euskaldunen jaia hilaren 13an Beran

A. IMAZ

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak UEMA Eguna antolatu du Beran (Nafarroa) hilaren 13an. Areso eta Leitza, besteak beste, mankomunitate honetan aurkitzen dira. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte jaira.

UEMAk egun guztiarako egitaraua antolatu du Beran, *Euskarak elkartzen gaituelako* lelopean.

Hilaren 13ko egitaraua

Goizean txistulariak eta txaranga ibiliko dira Berako kaleetan. 11:15ean herri kirolak egongo dira. 11:30ean harrera instituzionala egingo zaie ordezkarri desberdinei Kultur Etxean. 13:00etan Ekitaldi Nagusia egingo dute. 14:30ean Ziklo Jatearen txanda izango da. Ondoren Haur Txokoa, ipuin kontalaria eta dantzariak egongo dira.

Karate Txapelketa gaur 17:00etan Leitzan


A. IMAZ

Leitzako Udal Kiroldegian I. Nafarroako Karate Federazio Txapelketa jokatuko dute gaur 17:00etatik aurrera.

Nafarrez gain, Hego Euskal He-

rriko hainbat karateka egongo dira Leitzan, errioxarrekin eta Aragoi-koekin batera.

Txapelketan, hurrek eta gazteek sei modalitateetan parte hartze-ko aukera edukiko dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Aste Berdea

■ **Amezketeta.** Ingurumen Eguna: 10:00etan Zumadi herri eskola-Berazeagako erreka-Altun goena-San Martin ermita mendi irteera.
■ **Villabona.** Errebote Plazan Atari Bizi lehiaketarako dohaneko lore banaketa goizean zehar.
■ **Berastegi.** 11:00-14:00: Eguzki-labeen erakusketa. 16:00-19:00: Eguzki-labea egiten ikasteko tailerra.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Alcer Gipuzkoa organo emaileen elkarteak informazio mahaia jarriko du San Frantzisko parrokiaren aurrean.
■ **Tolosa.** Artisautza Azoka Triangelu 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era.
■ **Tolosa.** Sanjoanetako Koadrila Eguneko bazkarirako txartelak salgai Orbela tabernan ostiralean gaur 12:00etatik 14:00etara.

Musika

■ **Tolosa.** Dulce Pontesen kontzertua 20:30ean Leidor antzokian.

Kirolak

■ **Tolosa.** Larraona-Kanpezu (Araba) mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 14rako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5. 943 652789, alpinouzture@hotmail.com).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Emeterio Arrese, babarrun soro

Kultura » Ohiturari jarraituz, babarrunak erein zituzten atzo hiriko erdigunean; Laskoraingo haurrak bertan izan ziren.

ERREDAKZIOA

Esaera zahar batek dio, zerbaiz jaso nahi bada, lehendabizian erein egin behar dela. Hori dela eta, Tolosako babarrun gozoak dastatu nahi baldin baditugu neguan, ezinbestean, udaberriari landatu egin beharra daukagu. Atzo horretarako eguna izan zen.

Tolosako babarrunak izugarriko sona eta ospea du inguruan, eta horren adierazgarri da atzo, ereitean bildu zen jende multzoa. Urteroko ohiturari jarraituz, hiriko haurrek ikus dezaten nondik etortzen den lekale hau, erdiguneko eremu bat baratza bihurtu zuten. Duela bi urte, Gernikako arbolaren ondoko eremua izan zen aukeratua, iaz, Errota Haur Liburutegiaren ondokoa, eta aurten, Emeterio Arrese pasealekuan egin dute, adinekoen eguneko egoitzaren ondoan.

Laskorain ikastolako haurrek, Tolosako Babarrunaren elkarteak nahiz kofradiakoe, eskualdeko sukaldari ezagunek eta Tolo-



Gailu berezi bat erabiliz, 250 zulo egin zituzten, eta hauetan landatu babarrunak. E. EZEIZA

sako Udaleko ordezkariak landatu dituzte oraingoan babarrunak. Denera, 250 zulo egin zituzten atzarako, beste horrenbeste landare hazteko gero. Gailu berezi bat erabili zuten horretarako. Aitzurrarekin zulorik egin gabe, azkar eta modu erosoa haziak ereinaz. Tutore gisa hagak jarriko dituzte gero, eta Goroldikoak arduratuko dira beraien zaintzaz, ondoren, urrian edo azaroan, emandako babarrunak bildu ahal izateko. Beraz, hemendik aurrera, tolosarrek landa baserri inguruetara joan gabe, babarrunak nola hazten diren ikusi ahal izango dute.



Banan-bana joan ziren, zulo batetik bestera haziak botatzen. E. EZEIZA

A Agurrak



Urte askoan!

Martin Urtaza (Amezketeta). Mende erdia egin eta oraindik modatik pasa gabe. Zorionak. (Hiru lagunminekin).



Urte askoan!

Irene Martinez Urtaza (Hernani). 14 urte. Zorionak familia guztiaren partetik. Amona, izeba Maria eta Osaba Martin.